

# Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

## Nigertarrentzat gameluak, uranioa guretzat

Europak eta zehazki Frantziak Afrikan darabilen neokolonialismoak adibide bat behar izatekotan, Niger ipini genezake: balio handia duten lehengaiak ia hutsaren truke eraman, langileak babes sozialik gabe erabili, kutsadura denean zabaldu, behar denean gobernu aldazazi...

### NIGERREKO URANIOAK INDIAR HANDIA

dauka. Hain handia, ezen eta George Bush AEBetako lehendakaria bere kargutik erortzeko arriskuan ipini baitezake. Irakurleak gogoan izango du: Washingtongo gobernuak Irak inbaditzeko aitzakia bila zebilenean, Irak Nigerren uranioa erosten ari zela zabaldu zuten, ondoren Joseph Wilson enbaxadore ohiak artikulu batean argitu zuen hori gezurra zela, ordainetan gobernuko norbaitek filtratu zion prentsari Wilsonen emazte Valerie Plame CIAko agentea zela, senar-emazteek kontua auzitara eraman eta Lewis "Scooter" Libby aholkularia espetxera kondenatu dute... Orain ikusteko dago gai honek atzetik Dick Cheney lehendakariordea bera auzitara ez ote duen eramango. Nahaspila argigarri horri esker –argigarria, Irak gezurretan oinarrিতa inbaditu zutela erakutsi duelako– enteratu gara Mendebaldeko herritar asko Niger izeneko basamortu batean ekoizten dela gure zentral nuklearrak elikatzeke ogia den uranioaren zati bat.

Hein handi batean Saharako desertuaren zati den Niger estatuak 14 milioi biztanle dauka, kilometro karratuko 11. Urteko eta pertsonako errenta 876 dolarretan dago: eguneko 2,4 dolar. Aberastasunaren araberrako zerrendan, 190 herrialderen artean 179. lekuan dago Niger. Egunean 3 dolar baino gutxiagorekin bizi behar dute nigertarrek, eta hala ere beren

aberria da munduan uraniorik gehien ekoizten dutenetakoa, Kanada eta Australiaren atzetik. Ludiko zentral nuklearretan erretzen den uranioaren %8 Nigerretik dator. Baina erregai atomikoak mugiarazten duen komertzioan nigertarrek ez dute etekin handirik eskuratzen.

Joan den urtarrean Kenyako Nairobi Munduko Gizarte Foroan horixe salatu zuten Nigerretik bertaratutako zenbait militantek, hala nola Alternatives Espaces Citoyens GKEko Mamane Sani Adamou-k.

Berak aurkeztutako dokumentua argitaratu du *Afrikara* aldizkari elektronikoak. Honekin hasten da: "Mendebaldeko industria zibil eta militarrentzako iturri estrategikoa izanik, Afrikako uranio ugariak erakusten du lurpeko aberastasunak urrutiko korporazioen eta kontsumitzaileen etekinerako direla. Hor ageri da Afrikak nazioarteko espezializazioan lehen bezala gaur daukan estatusa: harrapaketa, okupazio eta desjabetze honengatik, balioa daukan guztia geratzen da afrikarren, langileen eta txiroen eskuetatik aparte".

Afrikako herrietan neokolonialismoa independentziarekin bateratsu hasi zen. Nigerren, Frantziaren kolonia izatea utzi eta hurrengo urtean, 1961ean, defentsa hitzarmena sinatu zuten bi estatuak, uranioa baliabide estrategikotzat deklaratu.

Niger aberatsa da munduan gehien ordaintzen den mineraletako batean, uranioan, baina bertako herritarrek planetako jenderik txiroenak izaten segitzen dute. Arlit herri artifizialean eta inguruetan uranio meategietatik bizi direnek inolako segurtasunik gabe egiten dute lan eta erradioaktibitateak pozoitzen ditu egunero, erakunde askok alferrik salatu dutenez. Gainerakoan, Mediterraneo aldera eta Europara emigratzen dute milaka nigertarrek. Irudian ikusten dira horietako batzuk Saharan barnatuko diren kamioietan beren puskak egokitzen. Nigerreko Agadez herrian dago egina fotoa. Kamioien gainean, bidaiari batzuk Nigerreko beste herri edo osasiren batera doaz, beste batzuk inguruko herrialderen batera, eta badira batzuk era ilegalean Aljerian edo Libian sartzen saiatuko direnak. Ez dira denak iritsiko, eta basamortuan geratuko dira hilotz.

1969an Frantziak proposatu zuen Nigerretik aterako zuen uranio guztiaren truke prezio itxi bat ordaintzea: 1.000 milioi franko CFA. Garai hartan moneta horrek Frantziako libera baten 0,02 balio zuenez, orduko 20 milioi frankotan zen urteko tratua. Merke.

Hamani Diéré lehendakaria berandu konturatu omen zen zein tratu kaxkarra sinatu zuen frantsesekin, eta baldintzak hobetu nahian hasi zen. Tratutan berriro hasita, tona bat uranioaren ordainetan 1.000 tona petrolio eskatu zuten. Garestitxo nonbait, zeren eta Frantziak 1974an estatu kolpea bultzatu zuen azpi-jokoz. Gobernu berriak honako tratua sinatu zuen Parisekin: urte bakoitzean eramandako uranio guztiaren truke 10.000 franko CFA; lehenbiziko hitzarmeneko halako hamar, baina lepoa moztutako gobernuak eskatzen zutena baino askoz gutxiago.

### Ez da Niger, Areva da

1980ko hamarkadan zor handitan sartu zen Nigerreko Gobernuak. Agintariekin ordaintzeko estuasunak zituzten eta aldi berean munduan zegoen koiuntura baliatuz, uranioa ustiatzen zuen COGEMA multinazionalak are gehiago jaitsiarazi zituen prezioak. Ondorioz, nekazaritza sendotzeko eta herrialdeko ekonomia sustatzeko planak bertan behera geratu ziren.



Nigerreko uranioa ustiatu duen enpresa COGEMA (Compagnie Générale des Matières Nucléaires) izan da luzaz. 2006tik Areva du izena munduko 40 herrialdetan funtzionatzen duen multinazional frantses honek. Bere burua honela definitzen du Arevak: “Erregai nuklearretan munduko liderra, uranioaren ziklo guztia lantzen dugu hasi meategitik, eraldatu, aberastu eta erabilitako erregeia tratatu eta birziklatzeraino”. Planetako multinazional lider honekin negoziatu behar dute Afrikako herririk txiroenetako baten buruzagiek. Obeditu beste biderik ez daukate.

Hala ere, mende berriarekin batera hasi dira mobilizazioak Nigerren, bertako hareatzen dagoen aberastasun bakarretako baten ustiapena demokratizatzeko eskatuz.

Mobilizazio horien akuiluetako bat uranio ustiaketak Nigerren eragin dituen arazo sozialetan datza. 1974an –Frantziak lagundutako estatu kolpe- tik berehala– Arlit izeneko herria sortu zen uranio meategietako baten aldamenean. Bernard Desjeux izeneko frantses batek, argazkiz ondo hornitutako gune batean, honela deskribatzen du Arlit: “250 frantses bizi ziren enpresak sortutako herrixkan. ‘Petit Paris’ deitzen zioten, eta bazituen Frantziatik ekarritako kontsumogaiez beteriko komertzioak, Nigerreko ospitalerik onena, restaurantak, pizgina... Arlitetik westernetako herri baten itxurak zituen”.

Arliten inguruan urteen poderioz 60.000 pertsona bildu dira. Izan ere, une batean enpresak 2.000 langile baitzeuzkan enplegatuta. Gero, uranioa-

ren prezioen gorabeherekin, 600etara mugatu zen. Gaur gehiago izango ditu. Baina Nigerreko desertuan dabiltzan gameluekin kontrastea egiten duen hiri honek biltzen ditu neokolonialismoaren kontraesanak oro ere.

Beharginen eta enpresako buruen arteko soldaten artean sekulako leizea dago. Bertako beharginek 25.000-50.000: F-CFA (38-76 euro) kobratzen dute. Zerbitzu sozialak mixeriazkoak dira. Eskola bera ordaindu egin behar da. Aldiz, jendea ohartzen da zenbat diru ari den irabazten Areva multinazionala, zein diru gutxi ordaintzen dioten estatuari... eta kalean erreboltak gero eta ugariagoak dira.

Beste protesta iturria kutsadura da. Urte askoan herritarrak ez dira ohartu, baina orain nabarmentzen hasi dira osasun arazoak, langileak gaixotu eta zahartu ahala. Meategietan bertan eragindako kutsaduraz gain –eta enpresak ez ditu bere gain hartzen kutsadurak eragindako gaixotasunak– uranioaren garraioak gai erradiaktiboak barreiatzen ditu egunero Nigerren barrena. Hondakinak edonon daude edonola botata. Eta meategietan kutsatutako materialak erabiltzen dira gero, burdinak eta beste, etxegintzan inongo kontrolik gabe. Meategien inguruetako ur, erreka eta putzuak kutsatuta daude. Aire berdin.

Bitartean, Niger osoan ezin da aurkitu erradiaktibitatea neurtzeko kontagailurik, eta gobernuak estu zanpatzen ditu gaia plazan eztabaidatu nahi duten erakunde eta mugimenduak. Herritar askok Europara egin du jauzi. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Z E R B I T Z U A

### Beti hurbilago.

Zerbitzu integrala,  
pertsonezkoa,  
hurbila eta  
etengabea.  
Horixe  
da gure  
konpromisoa.

**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Hernani, 4 - 20004 DONOSTIA  
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net  
TEL: 943 426 624